c) Para cada una de las partidas que componen el estado de ingresos, una relación detallada de los ingresos que se mencionan en el apartado a) anterior, de las subvenciones o de otros ingresos, indicando importe y procedencia, conforme a la estructura del formulario 3a y 3b.

d) Erakunde eskatzailean behar besteko ahalmena duen pertsona batek sinatutako zinpeko aitortpena, honako hau egiaztatzen duena: diruz lagundutako proiektuari bakar-bakarrik egotzi ahal zaizkiola c) letran berariaz adierazitako sarrerak.

d) Declaración jurada suscrita por una persona de la entidad solicitante con poder suficiente en la que se manifieste que no existen otros ingresos imputables al proyecto subvencionado al margen de los expresamente recogidos en el apartado c) anterior.

e) Adieraziko da zein irizpide erabili diren b) letran adierazten diren kostu orokorrak eta/edo zeharkako kostuak banatzeko.

e) Indicación de los criterios de reparto de los costes generales y/o indirectos incorporados en la relación a que se hace referencia en el apartado b) anterior.

f) Baldin dirulaguntza jaso dezakeen gastuaren zenbatekoa handiagoa bada sektore publikoko kontratuen berezko araudian kontratu txikietarako ezarritako kopurua baino, gutxienez ere hiru hornitzailearen eskaintzak eskatu beharko ditu, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu aurretik, salbu eta, dirulaguntza jaso dezaketen gastuen ezaugarri bereziengatik, merkatuan ez badago behar beste entitate ondasun

f) Cuando el importe del gasto subvencionable supere las cuantías establecidas en la normativa propia de los Contratos del Sector Público, para el contrato menor, la persona beneficiaria deberá solicitar como mínimo tres ofertas de diferentes proveedores, con carácter previo a la contratación del compromiso para la prestación del servicio o la entrega del bien, salvo que por las especiales características de los gastos subvencionables no exista en el mercado suficiente número de entidades



edo zerbitzuok hornitu edo egiten dituenik, edo salbu eta gastua dirulaguntza eskatu baino lehen egin bada.

Aurkezten diren eskaintzak justifikazioan azaldu behar dira, eta, haien artean aukeratzeko, eragimen- eta ekonomia- irizpideen arabera jokatu da. Hala, proposamen ekonomikorik onena aukeratzeko ez denean, beren beregi justifikatu beharko da inguruabar hori, memoria baten bidez.

g) Fakturen eta berankortasunari buruzko araudian aurreikusitako epeetan egindako ordainketen euskarri diren dokumentuak.

Dokumentazio hori artxibo digital bakar batean bidali behar da, formularioan adierazitako gastuen hurrenkeraren arabera antolatuta, faktura bakoitza eta ordainagiria formularioan adierazitako ordena errespetatuz aurkez daitezten.

Kultur Ekintzako Zerbitzuak egiaztagiri horiek egiaztatu ahal izango ditu, dirulaguntzaren aplikazio egokiari buruzko arrazoizko ebidentziak lortzeko egokitzat jotzen dituen laginketa-teknikak aplikatuz.

h) Hala badagokio, diruz lagundutako jardueraren kostuari dagokionez finantzazioa gehiegizkoa izan daitekeela identifikatzea.

Dirulaguntza hau ematen da erakundeak aurkeztutako aurrekontua oinarritzat hartuz: 115.000 euro Horrek esan nahi du emandako zenbatekoa bere jardueren % 52,17 finantzatzea dela 2026an.

Ehuneko hori erreferentziatzen hartuko da dirulaguntzaren behin betiko zenbatekoa zehazteko, jardueraren azken kostuari dagokionez; horrela, dirulaguntza emateko oinarritzat hartutako aurrekontu osoa justifikatu beharko da. Horrek esan nahi du, Dirulaguntzen Erregelamenduaren 77. artikulua hiru paragrafoan xedatutakoaren arabera, itzulketa proportzionala egin beharko dela jardueraren azken kostu efektiboa aurrekontu hori baino txikiagoa bada.

3. Egitaraua gauzatzeko prestatutako esku-egitarau, kartel, argazki, argitalpen, ikus-entzunezko eta

que lo suministren o presten, o salvo que el gasto se hubiera realizado con anterioridad a la solicitud de la subvención.

La elección entre las ofertas presentadas, que deberán aportarse en la justificación, se realizará conforme a criterios de eficiencia y economía, debiendo justificarse expresamente en una memoria la elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

g) Aportación de las facturas y de los documentos que soporten los pagos realizados en los plazos previstos en la normativa sobre morosidad que resulte de aplicación.

Dicha documentación debe enviarse en un único archivo digital, organizado de acuerdo con el orden de los gastos indicado en el formulario, de modo que cada factura y su justificante de pago se presenten respetando el orden en que se hayan indicado en el formulario.

El Servicio de Acción Cultural podrá realizar la comprobación de los citados justificantes mediante la aplicación de las técnicas de muestreo que estime oportunas para obtener evidencia razonable sobre la adecuada aplicación de la subvención.

h) Identificación, en su caso, del posible exceso de financiación obtenido sobre el coste de la actividad subvencionada.

La subvención se ha concedido con arreglo al presupuesto presentado por la entidad, que asciende a 115.000 euros. Ello supone que el importe concedido se traduce en la financiación del 52,17 % de sus actividades durante el año 2026.

Este porcentaje servirá de referencia para la determinación del importe definitivo de la subvención respecto del coste final de la actividad, de tal manera que habrá de justificarse la totalidad del presupuesto tomado como base para la concesión de la subvención. Ello implica, que, en virtud de lo dispuesto en el apartado tercero del artículo 77 del Reglamento de Subvenciones, procederá el reintegro proporcional si el coste efectivo final de la actividad resulta inferior al citado presupuesto.

3. Ejemplares de mano, carteles, fotografías, publicaciones, material audiovisual e informático, así



informatikako materialen aleak, baita beste edozein motatako agiri grafikoren aleak ere; haietan, erraz ikusteko eran agertu behar da jarduera horretarako Bizkaiko Foru Aldundiak dirulaguntza eman duela. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren erakunde-elementuak sartuko dira material horietan, seigarren estipulazioarekin bat etorrita.

Laugarrena.- Jarraipen batzordea

Sinatzaileek dituzten betebeharrak eta hitzarmen honen xedea egoki gauzatzeko antolamendu juridikoak ezarritakoak betetzeko, eta jasotako funtsak egoki erabili direla kontrolatzeko, alde biko jarraipen-batzordea eratuko da, kide hauek izango dituen: Kulturako zuzendari nagusia edo beronek aukeratutako ordezkaria eta Kultur Ekintzako Zerbitzuko burua edo hark eskuordetzen duena, Bizkaiko Foru Aldundiaren aldetik, eta JAZZON ARETOA SLren bi ordezkari, erakundeak berak izendatutakoak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2018ko ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan 22.artikuluak jasotzen duena betez.

Batzorde horren burua Kulturako zuzendari nagusia izango da edo berak eskuordetutako pertsona; bertako idazkaria Kultur Ekintzako Zerbitzuko burua edo berak eskuordetutako pertsona izango da.

Batzorde hau hurrengo urteko lehen hiruhilekoan bilduko da, hitzarmenaren azken emaitza ebaluatzeko. Nolanahi ere, hitzarmena indarrean den bitartean, alderdiek nahi beste bilera-deialdi egin ditzakete.

Hitzarmen honetan jarraipen batzordeari buruz beren-beregi ezarrita ez dauden gaietan, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen atariko tituluaren II. kapituluaren 3. atalean kide anitzeko organoei buruz araututakoa aplikatuko da.

Bosgarrena.- Indarraldia

Hitzarmen hau indarrean jarriko da sinatzen den egunean bertan, nahiz eta 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera hasiko den atzeraeraginez ondorioak izaten; indarraldia 2026ko abenduaren 31ra arte luzatuko da, dirulaguntzaren gaineko justifikazioari buruzko

como cualquier otra documentación de carácter gráfico elaborada para el desarrollo del programa, debiendo constar en lugar visible en los mismos, que la actividad ha sido subvencionada por la Diputación Foral de Bizkaia, a cuyos efectos se insertará en éstos los elementos institucionales de ésta en los términos previstos en la estipulación sexta.

Cuarta.- Comisión de Seguimiento

A los efectos de dar cumplimiento a las obligaciones asumidas por las partes suscribientes así como a las impuestas por el ordenamiento jurídico en aras a la correcta ejecución del objeto del este convenio y a la adecuada aplicación de los fondos recibidos, se constituirá una Comisión de Seguimiento bipartita compuesta por la directora general de Cultura o persona en quien delegue y la jefa del Servicio de Acción Cultural o persona en quien delegue, por parte de la Diputación Foral de Bizkaia, y dos representantes de JAZZON ARETOA SL designados por esta, dando cumplimiento a lo establecido a tal efecto por el artículo 22 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Dicha Comisión estará presidida por la directora general de Cultura o persona en quien delegue, ocupando la Secretaría de la misma la jefa del Servicio de Acción Cultural o persona en quien delegue.

La misma se reunirá durante el primer trimestre del año siguiente para evaluar el resultado final de la ejecución del presente convenio, sin perjuicio de que puedan ser convocadas otras reuniones durante el período de vigencia del mismo, a instancias de cualquiera de las dos partes interesadas.

En lo no previsto expresamente en el convenio sobre la Comisión de Seguimiento, le será aplicable el régimen de los órganos colegiados regulado en la sección 3ª del capítulo II del título preliminar de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público.

Quinta.- Vigencia temporal

El presente convenio entrará en vigor el día de su firma, si bien sus efectos se producirán, con carácter retroactivo desde el 1 de enero de 2026, extendiendo su vigencia hasta el 31 de diciembre de este mismo año, salvo en lo relativo a las



xedapenei, jarraipen batzordeari eta horren ekonomia-eta finantza-kontrolari dagokienez salbu.

Seigarrena.- Onuradunaren betebeharrak

JAZZON ARETOA SLk nahitaez bete behar du Bizkaiko Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide orokorra ezarri duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 13. artikuluan xedatutakoa.

Halaber, dirulaguntza publiko bat jasotzeak berekin dakar onuradunak maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 33. artikuluan eta baterakoetan ezarritakoa bete behar izatea.

Gainera, JAZZON ARETOA SLk Bizkaiko Foru Aldundiak emandako laguntzaren berri emateko konpromisoa hartzen du; horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren ikurra jarriko du pankarta, kartel eta hedapenerako gainerako euskarri guztietan Foru Aldundiak proiektu honi emandako babesa agertzeko

Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiaren irudi korporatiboan ezarritako elementuak baliatuko dira, eta logotipoaren aldamenean esaldi hau agertuko da, hitzez hitz edo antzeko moduan:

«Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako ekintza/Actividad subvencionada por la Diputación Foral de Bizkaia».

Euskara hutsean garatutako proiektuetan, euskararen txantxangorriaren irudia sartu beharko da ere.

Dirulaguntza honen onuradunak konpromisoa hartzen du, halaber, euskara erabiltzeko diruz lagundutako jardueraren ondoriozko esku-hartze publiko guztietan. Era berean, liburuxka, kartel edo herritarrei beren jardueraren berri emateko erabilitako beste euskarri guztietan bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dituzte.

Onuradunak betebeharrak hauek ere izango ditu:

- Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea lanpostuen definizioan, sarbidean, kontratazioan eta iraungipenean, lanbide-sailkapenean, sustapenean, prestakuntzan, laneko segurtasunean eta osasunean,

disposiciones sobre justificación de la subvención, comisión de seguimiento y control económico-financiero de la misma.

Sexta.- Obligaciones de la beneficiaria

JAZZON ARETOA SL quedará obligada al cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 13 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las Subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

En idéntico sentido, la concesión de subvención pública conlleva que la beneficiaria quede sujeta a lo dispuesto en los artículos 33 y concordantes de la mencionada Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo.

Asimismo, JAZZON ARETOA SL se compromete a difundir la colaboración prestada por la Diputación Foral de Bizkaia incluyendo en las pancartas, carteles y cualquier otro medio de difusión el patrocinio foral de este proyecto insertando el logotipo de la Diputación Foral de Bizkaia.

Para ello se utilizarán, obligatoriamente los elementos establecidos en la imagen corporativa de la Diputación Foral de Bizkaia, incluyendo junto al logotipo la siguiente frase literal o análoga:

«Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako ekintza/Actividad subvencionada por la Diputación Foral de Bizkaia».

En los proyectos desarrollados íntegramente en euskera, deberá incluirse, además, la imagen del "Txantxangorri del euskera".

La beneficiaria de la presente subvención se compromete así mismo a utilizar el euskera en todas las intervenciones públicas resultantes de la actividad subvencionada. Igualmente, en todos los folletos, carteles o cualquier otro soporte utilizado para dar publicidad de su actividad a la ciudadanía deberán utilizarse las dos lenguas oficiales.

La beneficiaria estará igualmente obligada a:

- Promover la igualdad de mujeres y hombres en la definición de los puestos de trabajo, acceso, contratación y extinción, clasificación profesional, promoción, formación, seguridad y salud laboral,



ordainsari-politikan, erantzunkidetasunean, bizitza pertsonala, lan-bizitza eta familia-bizitza bateragarri egitean, lanaldiaren iraupen eta antolamenduan, ekintza sindikalean, ordezkaritza eta negozio kolektiboan, betiere diskriminaziorik sortzen ez duten lan-baldintza duin eta gizalegezkoak bermatuta.

- Zaintzea emakumeen eta gizonen tratamendua, protagonismoa eta balorazioa baliokideak izan daitezzen, eta berdintasuna, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, eta generoaren rol eta identitateen aniztasuna balio dituen irudi bat sustatzea idatzizko zein ahozko komunikazioetan, ikonografian, publizitate-ekintzetan, barruko zein kanpoko komunikazio formal eta informalean, eta proiektuari edo jarduerari lotutako edo proiektua edo jardura egiteko sortutako materialetan.

- Diruz lagundutako proiektua gauzatzen den bitartean, ez erabiltzea hizkera sexistarik dokumentuetan, ikus-entzunezkoetan eta gisakoetan (dokumentala, bisuala, etab.), eta pertsonen buruzko edozein estatistikatan datuak sexuaren arabera bereiz jasotzea, hala ezartzen baitu arlo horretan gorde behar diren printzipio nagusiak jasotzen dituen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 2018ko ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauaren 3 artikulua.

- Egiaztatzea, hala badagokio, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriarako 2007ko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritakoarekin bat emakumeen eta gizonen berdintasunerako plan bat dutela, eta benetan aplikatzen dutela. Horretarako, betebeharrak hori betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena bete beharko dute justifikazioarekin batera.

- Halaber, sexu-askatasunaren eta laneko osotasun moralaren aurkako delituak eta beste jokabide batzuk saihesteko lan-baldintzak sustatu beharko dira, bereziki sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena azpimarratuz, eremu digitalean egindakoak barne. Horretarako, betebeharrak hori betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena bete beharko dute justifikazioarekin batera.

Aurrekoaz gain, onuradunak laguntza eman behar du, eta foru-administrazioko organoek nahiz arautegi erkidearen arabera finantza-kontrola eginkizunak eratzikita dituzten organoek eskatzen dizkioten agiri guztiak eman beharko ditu, Foru Administrazioak

política retributiva, corresponsabilidad y conciliación de la vida personal, laboral y familiar, calidad y estabilidad laboral, duración y ordenación de la jornada laboral, y en la acción sindical, representación y negociación colectiva, asegurando unas condiciones laborales dignas, decentes y no discriminatorias.

- Velar por que el tratamiento, protagonismo y valoración de mujeres y hombres sea equivalente y el fomento de una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad, y pluralidad de roles e identidades de género, tanto en la información escrita, oral, iconográfica, acciones publicitarias, comunicación interna y externa, formal e informal como en los materiales generados o relacionados con la ejecución del proyecto o actividad.

- Asumir, en la ejecución del proyecto subvencionado, el uso no sexista de todo tipo de lenguaje (documental, visual, etc.) en cualquier soporte escrito o digital, y desagregar los datos por sexo en cualquier estadística referida a personas que, en su caso, se genere, todo ello al amparo del artículo 3 de la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres, en el que se señalan los principios generales que deberán respetarse.

- Acreditar, en su caso, el cumplimiento de la obligación de disponer de un Plan para la Igualdad de mujeres y hombres previsto en la Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la Igualdad Efectiva de Mujeres y Hombres, así como su aplicación efectiva. A estos efectos, deberán cumplimentar, junto con la justificación, declaración responsable del cumplimiento de esta obligación.

- Asimismo, deberá promover, condiciones de trabajo que eviten la comisión de delitos y otras conductas contra la libertad sexual y la integridad moral en el trabajo, incidiendo especialmente en el acoso sexual y el acoso por razón de sexo, incluidos los cometidos en el ámbito digital. A estos efectos, deberán cumplimentar, junto con la justificación, declaración responsable del cumplimiento de esta obligación.

La beneficiaria estará obligada a prestar colaboración y facilitar cuanta documentación sea requerida por los órganos de la Administración Foral, así como a los órganos que, de acuerdo con la normativa comunitaria, tengan atribuidas funciones de control



ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauko 41. artikulua xedatzen duena betez.

5/2005 Foru Arauko 27. artikulua xedatu lege, onuradunak azpikontratatzeko ezarritako baldintza eta debekuen erregimena bete beharko du. Lagundutako jarduerari dagokion zenbatekoaren % 90 azpikontratatu ahal izango da, gehienez.

Hirugarrenekin hitzarturiko jarduera-zatia dirulaguntzaren zenbatekoaren % 20tik gorakoa bada, eta zenbateko hori 60.000,00 euro baino gehiago bada, azpikontratazioak betekizun hauek bete beharko ditu:

- a) Kontratua idatziz egin behar da.
- b) Kontratua egin baino lehen, dirulaguntza ematen duen entitateak hartarako baimena eman behar du, oinarri-arauetan ezartzen den moduan.

Ezin izango da kontraturik zatitu, baldin hari dagokion zenbatekoa gutxitzeko eta goiko apartatuko betekizunak bete beharra saihesteko bada.

Diruz lagundutako jarduera osorik edo zati batean onuradunarekin lotutako pertsonekin edo erakundeekin gauzatzea hitzartzen denean, beharrezkoa izango da:

1. Kontratazioa merkatuko baldintza normalen arabera egitea. Horretarako, onuradunak gutxienez ere hiru hornitzaile eskatu beharko die eskaintza, aldez aurretik, non eta azpikontratutako jardueren ezaugarri bereziak direla-eta ez dagoen merkatuan behar beste entitate halako jarduerak eskaintzen dituenik, edo non eta gastua ez den egin dirulaguntza eskatu aurretik.

2. Aldez aurretik organo emailearen baimena lortzea.

Dirulaguntza honen onuradunak jakinarazi beharko du helburu bererako, estatuko, Europar Batasuneko edo nazioarteko edozein administrazio edo erakunde

financiero, ello conforme a lo dispuesto en el artículo 41 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las Subvenciones otorgadas por la Administración Foral.

A los efectos del artículo 27 de la Norma Foral 5/2005, la beneficiaria queda sometida al régimen de requisitos y prohibiciones previstos en materia de subcontratación. El porcentaje máximo de subcontratación admisible será del 90 % del importe de la actividad subvencionada.

Cuando la actividad concertada con terceros exceda del 20 por ciento del importe de la subvención y dicho importe sea superior a 60.000,00 euros, la subcontratación estará sometida al cumplimiento de los siguientes requisitos:

- a) Que el contrato se celebre por escrito.
- b) Que la celebración del mismo se autorice previamente por la entidad concedente de la subvención en la forma que se determine en las bases reguladoras.

No podrá fraccionarse un contrato con el objeto de disminuir la cuantía del mismo y eludir el cumplimiento de los requisitos exigidos en el apartado anterior.

Cuando se concierte la ejecución total o parcial de la actividad subvencionada con personas o entidades vinculadas con la beneficiaria, será necesario:

- 1.ª Que la contratación se realice de acuerdo con las condiciones normales de mercado para lo que será preciso que la beneficiaria solicite, con carácter previo, como mínimo tres ofertas de diferentes proveedores, salvo que por las especiales características de las actividades subcontratadas no exista en el mercado suficiente número de entidades que las presten, o salvo que el gasto se hubiera realizado con anterioridad a la solicitud de la subvención.
- 2.ª Que se obtenga la previa autorización del órgano concedente.

Igualmente, la beneficiaria de esta subvención queda obligada a comunicar la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la



publiko zein pribatutatik beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jaso izana.

Onuraduna behartuta dago enpresa-deslokalizazioan ez erortzera, gaia arautzen duen foru-araudian xedatutakoa aplikatuz.

Zazpigarrena.- Itzulketa

Jasotako dirulaguntza eta dagozkion berandutze-interesak itzuli beharko dira, baldin eta hitzarmen honetan ezarritako betebeharren bat betetzen ez bada edo Foru Administrazioak emandako diru-laguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren 33. artikuluan edo Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren bidez onartutako Diru-laguntzen Erregelamenduan aurreikusitako kausaren bat gertatzen bada. Besteak beste:

- a) Diru-laguntza lortzeko, bete beharreko baldintzak faltutu edo laguntza jasotzea galaraziko luketen datuak ezkutatzen direnean.
- b) Xedea, jarduera, proiektua edo diru-laguntza emateko funtsa den jokaera oso-osorik edo zati batean betetzen ez denean.
- c) Justifikazioaren betebeharra ez betetzea.
- d) Dirulaguntza nahiko edo behar bezala justifikatzen ez bada, justifikatu ez den dirulaguntzaren zatia eta sortutako berandutze-interesak itzuli beharko dira, horretarako Euskara, Kultura eta Kirolaren Saileko Kultur Ekintzako Zerbitzuak eskaera egin ondoren.
- e) Ezarritako kontrol jardunei ezetz esan edo oztopoak jartzea.
- f) Enpresa-deslokalizazioaren deklarazioa jaso izana, gaia arautzen duen foru-araudian xedatutakoa aplikatuz.
- g) Hitzarmen honetan aurreikusitako gainerako kasuak ez betetzea.

misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, estatales, de la Unión Europea o de organismos internacionales.

La beneficiaria queda obligada a no incurrir en deslocalización empresarial en aplicación de lo dispuesto en la normativa foral que regula la materia.

Séptima.- Reintegro

Procederá el reintegro de la subvención recibida y los intereses de demora correspondientes cuando se incumpla alguna de las obligaciones establecidas en este convenio o se incurra en alguna de las causas previstas en el artículo 33 de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, o en el Reglamento de Subvenciones aprobado por el Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo de la Diputación Foral de Bizkaia, entre otras:

- a) Obtención de la subvención falseando las condiciones requeridas para ello u ocultando aquellas que lo hubieran impedido.
- b) Incumplimiento total o parcial del objetivo, de la actividad, del proyecto o la no adopción del comportamiento que fundamentan la concesión de la subvención.
- c) Incumplimiento de la obligación de justificación.
- d) La justificación insuficiente o deficiente conllevará la obligación de reintegro, incluidos los correspondientes intereses de demora, de la parte de la subvención no justificada, previo requerimiento por parte del Servicio de Acción Cultural de la Diputación Foral de Bizkaia.
- e) La negativa u obstrucción a las actuaciones de control establecidas.
- f) Haber sido objeto de declaración de deslocalización empresarial, en aplicación de lo dispuesto en la normativa foral que regula la materia.
- g) Incumplir los demás supuestos previstos en el presente convenio.



Dirulaguntza jaso duen jardueraren kostua baino finantzazio gehiago jasotzen bada, dirulaguntza itzuli beharko da

El exceso de financiación, con relación al coste de la actividad subvencionada, también constituirá motivo de reintegro.

Dirua itzultzeko prozedura dirulaguntzak arautzen dituen araudi aplikagarrian xedatutakoaren arabera izapidetuko da.

El procedimiento de reintegro se tramitará con sujeción a lo dispuesto en la normativa reguladora de subvenciones que resulte de aplicación.

Zortzigarrena.- Dirulaguntza onuradunaren ekimenez itzultzea

Octava.- Devolución de la subvención a instancia de la beneficiaria

Dirulaguntzei buruzko Araudia onesten duen martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 76. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz (dekretu horrek maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzen du), pertsona edo onuradunak dirulaguntza Bizkaiko Foru Aldundiari itzultzea erabaki dezake hark ez eskatu arren. Hala gertatuz gero, Bizkaiko Foru Aldundiak dirulaguntza itzuli arteko berandutza-korrituen zenbatekoa kalkulatu du aurrean aipatutako 76. artikuluan xedatutakoaren arabera eta 5/2005 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

De conformidad con lo previsto por el artículo 76 del Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, la persona o entidad beneficiaria podrá proceder a la devolución voluntaria de la subvención concedida por la Diputación Foral de Bizkaia sin el previo requerimiento de esta última. En este supuesto, la Diputación Foral de Bizkaia calculará los intereses de demora hasta el momento de la devolución efectiva de la subvención, conforme a lo dispuesto en el referido artículo 76, y según lo establecido en el artículo 34 de la Norma Foral 5/2005.

Onuradunak eskatuta foru dirulaguntza itzultzeko ordainketa-gutun bat erabili behar da. Ordainketa-gutun hori Kultur Ekintzako zerbitzuaren bulegoetan izapidetuko da, onuradunak eskaera aurkeztu eta gero. Ordainketa-gutun horretan honako hauek adierazi behar dira: itzuli beharreko zenbatekoa (printzipala eta berandutza-interesak), ereduaren kodea eta diru-sarreraren zergatia, itzuli behar den dirulaguntzari erreferentzia eginda.

La devolución de la subvención foral a instancia de la beneficiaria se deberá realizar mediante la correspondiente carta de pago que, a su requerimiento, le será tramitada en las dependencias del Servicio de Acción Cultural. En dicha carta de pago se consignará el importe a devolver (principal e intereses de demora), código del modelo y motivo del ingreso haciéndose además referencia a la subvención a devolver.

Onuradunak dirulaguntza finantza-erakunde batean edo telematikoki ordaindu ondoren, itzulketaren frogagiria aurkeztu beharko da Euskara, Kultura eta Kirol Saileko Kultur Ekintzako Zerbitzuan.

Una vez practicado el abono por la beneficiaria en una entidad financiera o telemáticamente, habrá de remitirse justificante del respectivo ingreso al Servicio de Acción Cultural del Departamento de Euskera, Cultura y Deporte.

Bederatzigarrena.- Zehapen araubidea

Novena. - Régimen sancionador



Onuradunak egiten badu Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Arauaren IV. tituluko I. kapituluaren jasota dauden egite edo ez-egiteren bat, onuradunari zehapen-espedita ireki ahal izango zaio, foru arau horren 61. artikuluan ezarritakoaren arabera; zehapen-espedita hori arau hauetan xedatutakoaren arabera bideratuko da: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 eta Euskal Administrazio Publikoen zehatzeko ahalari buruzko martxoaren 16ko 1/2023 Legean xedatutakoa dela bide.

Arau-haustean diru zehapenak ezarriko dira, hain zuzen:

- isun finkoa, 75 eta 6.000 euro bitartekoa,
- eta, isun proportzionala, bide ez zela jasotako, erabilitako edo frogatu gabeko kopurua eta halako hiru bitartekoa.

Era berean, ondoko zehapenak ezartzea erabaki ahal izango da:

- Bost urtez, gehienez, Foru Sektore Publikoko dirulaguntza publikoak eta abalak ezin jaso izatea.
- Bost urtez, gehienez, erakunde laguntzaile gisa jarduteko aukera galtzea.
- Bost urtez, gehienez, foru sektore publikoko erakundeekin kontratuak egiteko debekua.

Zehapena ezartzeak ez du loturarik izango dirulaguntza gisa behar ez bezala eskuratutako kopurua itzuli behar izatearekin.

Hamargarrena.- Araubide juridikoa

Hitzarmen honetan aurreikusten ez den guztirako, honako araudi hauek aplikatuko dira: Foru Administrazioak ematen dituen dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua, Bizkaiko Foru Aldundiak 2010eko martxoaren 23an emaniko 34/2010 Foru Dekretuaren bitartez onartu zen dirulaguntzak emateko erregelamendua, 2005eko maiatzaren 31ko

La comisión por la beneficiaria de cualquiera de las acciones u omisiones contenidas por el capítulo I del título IV de la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, podrá dar lugar a la apertura de un procedimiento sancionador a tenor de lo dispuesto en el artículo 61 de la citada Norma Foral que se tramitará conforme a lo dispuesto en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, en la Ley 40/2015, de 1 de octubre de Régimen Jurídico del Sector Público, y en la Ley 1/2023, de 16 de marzo, de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas Vascas.

Las infracciones se sancionarán mediante la imposición de sanciones pecuniarias, que podrán consistir:

- en multa fija, comprendida entre 75 y 6.000 euros,
- y, multa proporcional, que podrá ir del tanto al triple de la cantidad indebidamente obtenida, aplicada o no justificada.

Así mismo, se podrá acordar la imposición de las sanciones siguientes:

- Pérdida, durante un plazo de hasta cinco años, de la posibilidad de obtener subvenciones públicas y avales del sector público foral.
- Pérdida durante el plazo de hasta cinco años de la posibilidad de actuar como entidad colaboradora.
- Prohibición, durante un plazo de hasta cinco años, para celebrar contratos con cualquier entidad del sector público foral.

La imposición de sanción será independiente de la obligación de reintegro de la cantidad indebidamente obtenida en concepto de subvención.

Décima.- Régimen Jurídico

Para todos aquellos aspectos no previstos en el presente convenio, serán aplicables la Norma Foral 5/2005, de 31 de mayo, por la que se regula el régimen jurídico general de las subvenciones otorgadas por la Administración Foral, el Decreto Foral 34/2010, de 23 de marzo, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se aprueba el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral



5/2005 Foru Araua garatzen duena, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 1eko 40/2015 Legea eta beraren izaeragatik aplikatzekoa izan daitekeen beste edozein xedapen arau-emaila.

Era berean, Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Araua aplikatuko zaio erakundeari, baldin eta aurrekontu-ekitaldi honetan gutxienez 100.000 euroko laguntza edo dirulaguntzak jasotzen baditu Bizkaiko Foru Aldunditik, edo urteko diru-sarrera guztien %40 foru-laguntza edo dirulaguntza publikoa bada, betiere gutxienez 5.000 eurora iristen badira.

5/2005, de 31 de mayo, la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, la Ley 40/2015, de 1 de octubre de Régimen Jurídico del Sector Público, y cualquier otra disposición normativa que por su naturaleza pudiera resultar de aplicación.

Será igualmente de aplicación a la entidad la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia si durante el presente ejercicio presupuestario percibe de la Diputación Foral de Bizkaia ayudas o subvenciones que alcancen al menos una cuantía de 100.000 euros o cuando el 40 % del total de sus ingresos anuales tengan el carácter de ayuda o subvención pública foral, siempre que alcancen como mínimo 5.000 euros.

Hamaikagarrena.- Datu pertsonalen tratamendua

Datu pertsonalen babesaren arloan aplikatu behar den araubidea manu hauetan ezartzen da: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua (EB), Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa (DBEO aurrerantzean) eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, Datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzeko dena (DBEDBLO aurrerantzean).

Egin behar den datu pertsonalen tratamenduaren deskripzio orokorra:

Hitzarmen hau dela bide, alderdi biek behean adierazten diren rolak eta erantzukizunak bereganatzen dituzte, eta DBEO eta DBEDBLO ezarritako eta aplikatu beharreko estipulazioak betetzeko konpromisoa hartzen dute.

a. JAZZON ARETOA SL dirulaguntzaren kudeaketarako tratatu beharreko datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna izango da. Dirulaguntzaren aurrekontu-partida hau da: 0405 G/334104/44300/0000, 2024/0059 proiektua.

b. Kultura Zuzendaritza Nagusia (Bizkaiko Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kiroleko Foru Saila) JAZZON ARETOA SLren arduradunekin/ordezkariekin harremanetan jartzeko datuen tratamenduaren arduraduna izango da;

Undécima.- Tratamiento de datos personales

El régimen de protección de datos personales aplicable es el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos (en adelante, "RGPD"), y la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de datos personales y garantía de los derechos digitales (en adelante, "LOPDGDD").

Descripción general del tratamiento de datos personales a efectuar:

Ambas partes adquieren los siguientes roles y responsabilidades en virtud del presente convenio y se comprometen para tal fin a cumplir con las estipulaciones establecidas en el RGPD y en la LOPDGDD que le sean de aplicación.

a. JAZZON ARETOA SL tendrá la consideración de responsable del Tratamiento de los datos personales que sea necesario tratar para la gestión de la subvención derivada de la partida presupuestaria 0405 G/334104/44300/0000, proyecto 2024/0059.

b. La Dirección General de Cultura (Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Bizkaia) tendrá la consideración de Responsable del Tratamiento para tratar los datos de contacto de los y las responsables/representantes de



tratamendu hori beharrezkoa izango da, bai hitzarmen hau idazteko, bai datuon derrigorrezko zaintzarako. Kultura Zuzendaritza Nagusiak DBEDBLOren 19.3 artikulua ematen dion legezketasunean oinarrituta egingo du aipatutako tratamendua.

JAZZON ARETOA SL necesarios para la redacción del presente convenio, así como para la subsiguiente y obligada custodia de dichos datos. La Dirección General de Cultura realizará el referido tratamiento en base a la legitimación que le otorga el artículo 19.3 de la LOPDGD.

Hitzarmen honen bidez ez da artikulatzen alderdien artean DBEOren 26. artikuluan ezarritako erantzunkidetasun-harremaneko bat ere; izan ere, alderdiek ez dituzte elkarrekin ezartzen ez helburuak, ez eta hitzarmenaren bidez aurreikusten diren tratamenduak ere.

El presente convenio no articula entre las partes ninguna relación de corresponsabilidad de las contempladas en el artículo 26 del RGPD puesto que las partes no determinan conjuntamente los objetivos y los medios de los tratamientos que por medio del convenio se prevén.

Halaber, hitzarmen honek ez du artikulatzen alderdien artean tratamenduaren arduradunen eta tratamendueragileen arteko harremanik, DBEOren 28. artikuluekin bat; izan ere, alderdietako batek ere ez du bestearen konturako datu pertsonalik tratatzen.

El presente convenio tampoco articula entre las partes una relación de responsables y encargadas del tratamiento conforme al artículo 28 del RGPD puesto que ninguna de las partes trata datos personales por cuenta de la otra.

Hitzarmen honen I. eranskinean (Alderdien konpromisoak) zehatuta daude datu pertsonalen babesaren arloan indarrean den araudia betetzeko alderdiek hartzen dituzten konpromisoak.

Los compromisos de las partes para el cumplimiento de la normativa vigente en materia de protección de datos personales se especifican en el Anexo I "Compromisos de las partes" del presente convenio.

Hamabigarrena.- Auziak ebaztea

Alderdi biek Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ohoretsuaren arbitrajea onartu dute hitzarmenaren ondoreen interpretazioaz sortzen diren zalantzak argitzeko

Duodécima.- Resolución de conflictos

Ambas partes se someten al Arbitraje del Ilustre Colegio de la Abogacía de Bizkaia en aras a la interpretación de cuantas dudas pudieran surgir en la interpretación del nexo que se deriva de la firma del presente convenio.

Hitzarmen honetan auzigairik sortzen bada, administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren pean jarriko dira, izaera juridiko-administratiboa baitute halakoek.

Las cuestiones litigiosas que pudieran derivarse del presente convenio, dada su naturaleza jurídico-administrativa, serán sometidas al orden jurisdiccional contencioso-administrativo.

Hitzarmen hau irakurri ondoren, alderdiek adierazitako guztia onartu eta berretsi dute eta, hori frogatzeko, adierazitako tokian eta egunean sinatu dute.

Tras la lectura del presente convenio las partes otorgantes se ratifican y afirman en su contenido y, en prueba de conformidad, lo firman en el lugar y fecha indicados.

**Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua/
Diputada foral de Euskera, Cultura y Deporte**

**JAZZON ARETOA SL
Ordezkaría/Representante**

LEIXURI ARRIZABALAGA ARRUZA

GORKA REINO PRADA





2026ko JARDUEREN FINANTZAKETA PARTZIALA FINANCIACION PARCIAL DE LAS ACTIVIDADES DE 2026	GASTU ETA SARREREN EGOERA ESTADO DE GASTOS E INGRESOS EPEA / PERÍODO:	1. Inprimakia / Formulario 1 Onuraduna / Beneficiaria: JAZZON ARETOA SL	ZZ1
			Data / Fecha
			Erregistro zk./ Nº de registro



A) GASTUAK / GASTOS			B) SARRERAK / INGRESOS		
1) Hornikuntzak / Aprovisionamientos			1) Erakundeak bere jarduera dela-eta izandako sarrerak / Ingresos entidad por actividad propia		
a) Jarduerarako ondasunak eta hornikuntzak erostea / Compra de bienes y aprovisionamiento, para la actividad		€	a) Erakundearen beraren ekarpena / Aportación propia de la entidad		€
			b) Erabiltzaileen ekarpenak / Aportaciones de usuarios		€
2) Langile gastuak / Gastos de personal			c) Sustatzaile, babesle eta laguntzaileek egindako sarrerak / Ingresos de promociones, patrocinadores y colaboradores		€
a) Soldatak, alokairuak eta asimilatuak / Sueldos, salarios y asimilados		€	d) Jasotako dirulaguntzak / Subvenciones recibidas		
b) Karga sozialak (erakundearen kargurako G. Seg. eta beste batzuk) / Cargas sociales (S. Social a cargo entidad y otros)		€	Eusko Jaurларitza / Gobierno Vasco		€
			Bizkaiko Foru Aldundia / Diputación Foral de Bizkaia		€
3) Beste gastu batzuk / Otros gastos			Euskara, Kultura eta Kirol Saila / Departamento de Euskera, Cultura y Deporte		€
a) Kanpoko zerbitzuak / Servicios exteriores		€	Beste sail batzuk / Otros Departamentos		€
Errentamenduak eta kanonak / Arrendamientos y cánones		€	Udala / Ayuntamiento		€
